

EGONKORTZE-PROZESUEN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK BEHAR BEZALA BETETZEKO ARGIBIDE-OHARRAK (LEHIAKETA)

Udalek 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuetako lehiaketa-prozesuen oinarri orokorren eta espezifikoen interpretazioari buruz egindako kontsultak ebaluatu ondoren, EUDELeK, udalek prozesu horiek behar bezala izapidetu ditzaten, egokitzen jo du honako ohar hauek egitea.

OINARRI OROKORREI BURUZKO ARGIBIDEAK

-TASEI BURUZKO ERREFERENTZIAK (2 L ART.) ETA EZGAITASUN TXANDAREN ARABERAKO SARBIDEA (3 ART.)

Kontu hauek ez badira erakundeari aplikatzekoak, tasaren ordainketa araututa ez izateagatik eta ezgaitasun txandak eraginik ez izateagatik, erakundeak honako aukera hauek izango ditu:

- a) Dagokion epigrafearekin batera (Ezgaitasun Tasa eta/edo Txanda), **“Ez da egokitzen”** testua txertatzea. Kasu horretan, ez da beharrezkoa oinarriak berriz zerrendatzea. EUDELeK aukera hori gomendatzen du, kudeatzeko errazagoa delako, ez baita beharrezkoa berriz zerrendatzea.
- b) Edo, bestela, ezgaitasunaren eta tasen aipamenak ezabatzea; kasu horretan, oinarriak berriz zerrendatzea guztiz beharrezkoa da (4.a 3.a izango da, eta abar), baita testuak jasotzen dituen igorpenak ere, koherentzia gordetzeko.

*OHARRA: Metodologia honi, ezabatzearenari (ondoriozko zenbaki-korrelazioa errespetatuz, hala badagokio) edo “ez da egokitzen” testua sartzearenari, jarraitu behar zaio, oro har, Oinarriek kasuan kasuko erakundearentzat aplikagarriak ez diren plazaren betekizunak jasotzen dituzten kasuetan.

-2 m) eta 8.9) ARTIKULUAK: TESTUA ERAKUNDEAREN BEHARREN ARABERA EGOKITZEKO AUKERA

EUDELeK oinarriak@eudel.eus kanalaren bidez irekitako zalantzak ebazteko prozesuan ikusi denez, erakunde batzuek 2 m) eta 8.9) artikulua idazteko aldaketa puntuala behar dute, Oinarri Orokorretan aurreikusi gabeko kasu batzuk kontuan hartzeko.

Hori dela eta, erakundearen beharra izanez gero, eta udal autonomiaren esparruan, ordezkotestua hau onartzen da, oraingo erredakzioaren mugak (aldaketa gorritz) barne hartuta:

-2. M artikulua)

m) Ez izatea eskala, azpieskala, klase eta kategoria bereko karrerako funtzionario edo kategoria bereko langile finkoa, deialdia egin duen Udalean,

- 8.9 artikulua

“Karrerako funtzionario edo lan-kontratudun finko izateko edo lanpostuak aldi baterako betetzeko prozeduretan probak gainditzea

Merezimenduak alegatzeko tramitean adierazita alegatuko dira, data zehatzak eta erreferentziako LEPa adieraziz, eta ofizioz baloratuko dira, oinarri espezifikoean ezartzen den moduan, merezimendu hauek:

- Deialdia BOEn argitaratu den Lan Eskaintza Publikoaren bidez, deialdia egin duen administrazioko karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko sarbide-prozeduretan oposizioaldia gainditu izana, lanposturik lortu gabe.

- Deialdia egin duen Administrazioan lanpostuak bitarteko gisa edo aldi baterako betetzeko prozeduraren oposizioaldia gainditu izana, baldin eta deialdia dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu bada.”

-I. ERANSKINARI (Eskabideak aurkezteko eredu ofizial normalizatua), II. ERANSKINARI (Erantzukizuneko Adierazpena) ETA III. ERANSKINARI (Autoebaluaziorako Formularioa) BURUZKO ZALANTZAK, ESKABIDEEN

AURKEZPENARI BURUZKO 7. ARTIKULUARI ERREFERENTZIA EGITEN DIOTENAK (OINARRI OROKORRETAKO 8. ETA 9. ORRIALDEAK).

Argitu behar da eredu hauek oraindik ez direla eman, prestatzen ari baitira eta Foru Aldundiak emango baititu aurrerago.

-EPAIMAHAIAREN ZEIN HELBIDE ADIERAZI BEHAR DEN (17.6 artikulua)

17.6 artikulua azken paragrafoan, honako hau dioen tokian: *“Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak ...(e)n izango du helbidea”*, egoitza gisa deialdia egiten duen erakundearen beraren helbidea agertu behar du.

OINARRI ESPEZIFIKOEI BURUZKO ARGIBIDEAK

- **LANPOSTUEN DESKRIBAPENAREN HASIERAKO TAULA (1 art.)**
 - ✓ Oinarri espezifikoen hasierako taulan, lanpostu kopurua, haiei lotutako lanpostuak, lanpostuak betetzeko baldintzak... adieraztea eskatzen denean, zutabeetan jarri behar da Lanpostuen Zerrendaren Informazioa.
 - ✓ GARRANTZITSUA: titulazioei dagokienez, titulazio berriak edo araudiaren araberako baliokidetasunen dekretua eguneratuta ez daudenean, titulazio horri testu hau gehitu: **“edo baliokidea”**

-HIZKUNTZ ESKAKIZUNA (3 art.)

- ✓ Aukera bakarra hautatu behar den kasuetan (nolanahi ere nahitaezkoa delako, edo ez delako), beste aukera ezabatu behar da. Deialdi berean derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuei lotutako lanpostuak eta derrigorrezkoak ez diren beste batzuk daudenean, bi aukerak utzi beharko dira.

-I. ERANSKINA. MEREZIMENDUEN BAREMOA

- Esperientziaren idazketa oinarri espezifikoetan aldatzeko aukera.
 - Esperientzia Espezifikoaren Adibidea:

ESPERIENTZIA ESPEZIFIKOARI BURUZKO a.2 ARTIKULUA: TESTUA EGOKITZEKO AUKERA, ERAKUNDEAREN BEHARREN ARABERA:

Erakunde batzuek A.2 artikulua idazketan aldaketa puntuala behar dutela detektatu da. Horregatik, beharrezkoa bada, ordeztu testu hau onartzen da (gorriz, aldaketa), honela dioena:

a.2. Esperientzia espezifikoa:

20 puntura arte baloratuko dira, modu espezifikoa, bereizi eta esperientzia orokorrarekiko osagarrian, deialdia egin duen Administrazioan, egokitzen zen hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuetan egindako zerbitzuak, baremo honen arabera:

- xxxxxxx azpieskalan, xxxxxxx eskalan, edo xxxxxxx kategorian, xx azpitaldean, egindako zerbitzuengatik, edozein Administrazio publikotan, deialdia egin duen Administrazioa barne, xxxxxx puntu lan egindako egun bakoitzeko."

Beste erredakzio alternatibo hau aukeratu ahal izango da:

"a.2. Esperientzia espezifikoa:

20 puntura arte baloratuko dira, modu espezifikoa, bereizi eta esperientzia orokorrarekiko osagarrian, deialdia egin duen Administrazioan, egokitzen zen hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuetan egindako zerbitzuak, baremo honen arabera:

- xxxxxxx eskalaren xxxxxxx azpieskalara atxikitako lanpostuetan aritzeagatik, edo xxxxxxx kategorian, deialdia egiten duen Administrazioaren xx azpitaldean, xxxxxxx puntu lanegun bakoitzeko"

- Esperientzia Orokorraren Adibidea: A1

Hau dioen lekuan:

A1 artikulua. Esperientzia orokorra: "Esperientzia orokorra honako hau da: edozein Administrazio publikotan, deialdia egin duen Administrazioa barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo aurrekoei parekatutako talde profesionali atxikitako lanpostuetan egindako zerbitzuengatik esperientzia, kasuan kasuko hautaketa-prozesuaren xede badira, kontuan hartu gabe kausa dakarren harremanaren izaera, funtzionariala izan zein lanekoa.

Gehienez ere 60 puntura arte baloratuko da, baremo honen arabera:

xxxxxxx azpieskalan, xxxxxxx eskalan, edo xxxxxxx kategorian, xx azpitaldean, egindako zerbitzuengatik, edozein Administrazio publikotan, deialdia egin duen Administrazioa barne, xxxxxx puntu lan egindako egun bakoitzeko."

Honako hau esan ahal izan dezala:

A1 artikulua. Esperientzia orokorra: "Esperientzia orokorra honako hau da: edozein Administrazio publikotan, deialdia egin duen Administrazioa barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo aurrekoei parekatutako talde profesionali atxikitako lanpostuetan egindako zerbitzuengatik esperientzia, kasuan kasuko hautaketa-prozesuaren xede badira, kontuan hartu gabe kausa dakarren harremanaren izaera, funtzionariala izan zein lanekoa.

Gehienez ere 60 puntura arte baloratuko da, baremo honen arabera:

xxxxx eskalako xxxxx azpieskalara atxikitako lanpostuetan egindako zerbitzuengatik, A taldeko A2 azpitaldeari dagokion titulazioa eskatzen dutenetan, edo lan-kontratuko langile gisa titulazio bera eskatzen duten postuetan egindako zerbitzuengatik, edozein Administrazio publikotan, deialdia egin duen Administrazioa barne, xxxxxxx puntu lan egindako egun bakoitzeko."

- **INTERESEKO BESTE ARGIBIDE BATZUK**

-Gogorarazten dugu, aldundiek udalen esku jarriko duten aplikazio informatikoa erabili ahal izateko, egiten diren oinarriak EUDELeK emandako eredu baren arabera egin beharko direla, eta, une oro, honakoa bermatu beharko dela:

ESPERIENTZIA

- Esperientzia orokorraren eta espezifikoren ataletan jartzen diren kopuruek (puntu/egun) **proposatutako tartearen barruan jasota egon beharko dute.**

- Era berean, oinarrietan, gutxienez esperientzia orokorreko item bat eta espezifikoko beste bat jarri behar dira; ezin dira soilik esperientzia orokorrean sartu.

PRESTAKUNTZA

- Gauza bera puntu/orduei dagokienez ere; esleitutako puntuak proposatutako tartean oinarrituta egon behar dute.

BESTE ATAL BATZUK

It-txartelak: Proposatutako zerrendatik, erakundeak baloratu nahi dituenak hauta daitezke, baina ez bertsioak.

Esaldi honen inguruan: "Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarritzko maila egiaztatutzat joko dira", adierazi behar da maila aurreratua egiaztatzen duenak automatikoki puntuatutako duela oinarritzko mailan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharrik gabe.

EUDEL, 2022ko azaroaren 18a